



## **EBAZPENA**

Udal zerga eta tasak ordaintzeko zerbitzu berri bat —tarifa fiskal laua— ezartzeko azterlanari ekin zitzaion 2017ko otsailean, eta 2018ko azaroaren 20an bukatu dira lan horiek.

Zergadunei ordaintzeko obligazioa betetzeko erraztasunak ematea da helburua, hilean behingo kuoten sistema baten bitartez.

Aldian behingo epemuga duten eta kolektiboki jakinarazi beharrekoak diren zerga eta tasak hilean hileko hamar kuota berdinetan —interes eta kosturik gabe— ordaintzeko modu berri bat da, lehendik zeuden ordaintzeko moduei gehitzen zaiena.

Hauetan oinarritzen da tarifa fiskal laua: Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 10. artikulua, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 61.3 artikulua eta Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 70.6 artikulua.

Zergen Ordenantza Orokorren 70.6 artikulua arabera, "Ogasun Arloko zinegotzi ordezkariaren ebazpen arrazoitua dela medio, subjektu pasiboek hala eskatu eta ordainketak finantza-erakunderen batean helbideratzen dituztelarik aldian aldiko zerga eta prezio publikoak, inolako gainordainik gabe, hilabetez hilabete zatikatzeko sistema finkatuko da borondatezko zerga-bilketaren barruan, aplikazio informatikoa prest dagoenean".

Aldian behingo epemuga duten zerga eta tasak hilean hileko kuotetan ordaintzeko prozedura arautzen da horrenbestez.

### **Tarifa fiskal lauan sartutako zerga eta tasak.**

Zerga eta tasa hauei aplikatuko zaie:

- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga
- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga
- Zabor-tasa
- Ekonomia-jardueren gaineko Zerga
- Urteko eta sei hileko emakidak
- Ibilgailu-pasabideak
- Mahaitxoak
- Bide publikoan lurzorua eta lurpea okupatzea
- Hilerriak.

## **Tarifa fiskal lauan alta emateko eskabidea.**

Eskabidea aurkezten delarik ekingo zaio ordaintzeko modu berriari. Bertan, ordaintzera behartua identifikatu beharko da, kuotak kargatuko diren banku-kontuaren zenbakia eman, eta komunikazio eta jakinarazpenak jasotzeko helbidea adierazi.

Urte bakoitzeko otsailaren 28ra arte aurkeztu ahal izango dira eskabideak, eta ekitaldi horretan bertan kobratzekoak diren ordainagirietan izango dute eragina.

Mugarik gabeko indarraldia izango du altak, urtez urte, harik eta titularrak besterik adierazten duen arte, edo, ordaindu ez duelako, bertan behera uzten den arte.

Ordaintzeko sistema hori aplikatzekotan, eskabidea egiten duen titularraren aldi behingo eta kolektiboki jakinarazi beharreko zerga eta tasa guztiak bildu beharko dira —aurreko atalean adierazitakoak—.

Titular bakar baten zerga eta tasak baino ezingo dira sartu eskabide bakoitzean.

Eskabidea formalizatzen duelarik, sistema horren bitartez ordaindu beharreko kuoten zenbatekoari buruzko informazioa jasoko du zergadunak —aurreikuspena—.

## **Kuotak zehaztea eta galdatzea**

Titular beraren urte osoko zerga eta tasa guztiak bilduko ditu tarifa fiskal lauak, eta zor oso hori kuotatan banatuko da, inongo interes eta kosturik sortu gabe.

Hamar kuotatan banatuko da zor osoa. Martxoaren 20an ordaindu beharko da lehena, eta hurrengoak, berriz, hilabetez hilabete, hilaren 20an. Hartara, sortzen den ekitaldi berean ordainduko da zor osoa.

Martxoan, sistema horren bitartez ordaindu beharreko zenbatekoaren aurreikuspena egin ondoren, komunikazio bat helaraziko zaio titularrari, eta adieraziko:

- a) Aurreikusitako zenbateko osoa, zergaz zerga banatuta, eta bakoitzari dagokion zenbatekoa.
- b) Kuota bakoitzaren zenbatekoa.
- c) Kuota kargatuko den kontuaren zenbakia.

Azaroan, sistema osatzen duten kontzeptuen erroldak jaulki ondoren, behin betiko finkatuko da zergadun bakoitzak ordaindu beharreko kuotaren zenbateko osoa.

Behin betiko zenbatekoa ez badatoz bat hasiera batean komunikatutakoarekin, berriro kalkulatuko dira ordainketa-aldia bukatu arte geratzen diren kuotak, eta behar den komunikazioa helaraziko zaio titularrari.

Ordura arte ordaindutako kuota partzialek behin betiko kuota gainditzen badute, ofizioz ekingo zaio gehiegizko diru-sarrerak itzultzeko prozedurari, finantza-erakundeak kuotak ordaindu direla egiaztatu ondoren.

### **Tarifa fiskal lauaren bidezko ordainketan baja ematea.**

Edozein unetan aurkeztu ahal izango du titularrak tarifa fiskal lauan baja emateko eskabidea. Idatziz egin beharko da eskabidea, eta erregistroan sarrera ematen zaion egun beretik izango ditu ondorioak.

Ordaintzeke dauden kuotak hamabost eguneko epean ordaindu beharko dira, tarifa lauari baja ematen zaion egunetik. Tarifa fiskal lauak barne hartzen duen zerga edo tasaren bat ordaintzeko epea adierazitako epe hori baino luzeagoa bada, ordainketa-egutegi orokorrean aurreikusitako epea bukatu arte izango du titularrak ordaintzeke dituen haren kuotak ordaintzeko.

Tarifa fiskal lauan baja ematen delarik —interesdunak eskatuta edo bestela—, ezingo da berriro alta eman hurrengo urtera arte.

### **Ordainketa-baldintzak ez betetzeagatik tarifa laua bertan behera uztea.**

Kuota bat ordaintzeari uzten zaiolarik, Udalak abisua bidaliko du, eta hamabost eguneko epea emango ordainketa gauzatzeko.

Baldin eta bi kuota garaiz ordaintzen ez badira, besterik gabe geratuko da bertan behera ordaintzeko sistema hori. Halakoetan, hamabost eguneko epean ordaindu beharko ditu titularrak ordaindu gabe dituen tarifa fiskal lauako kuotak, hura bertan behera geratzen den egunetik. Tarifa fiskal lauak barne hartzen duen zerga edo tasaren bat ordaintzeko epea adierazitako epe hori baino luzeagoa bada, ordainketa-egutegi orokorrean aurreikusitako epea bukatu arte izango du titularrak ordaintzeke dituen haren kuotak ordaintzeko.

Ordaintzeko emandako epea igarotzen delarik, betearazteko aldia hasiko da, eta premiamendu-errekargua eta berandutze-interesak sortuko, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 26. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren ildotik.

Kuotak ordaindu ez direla eta tarifa fiskal laua bertan behera uzten delarik, ezingo da berriro alta eman hurrengo urtera arte. Behar den eskabidea egin beharko du zergadunak horretarako.

## Tramitazioa

Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoko bulego birtualaren bitartez eman ahal izango dute alta edo baja zergadunek, edo banku-helbidea aldatu, ziurtagiri digitala baliatuz.


Orobat egin ahal izango dute Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetan, jendaurreko orduetan.

Hasiera batean, San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25— eta San Antonio kaleko 10.eko herritarrei laguntzeko bulegoan zentralizatuko da aurrez aurreko arreta.

Horrenbestez, alkatearen 2016ko maiatzaren 5eko dekretuaren bitartez nire gain utzitako eskumenak baliaturik, hauxe ebatzi dut:

**"Tarifa fiskal laua" ordainketa-sistema ezartzen da aldi behingo epemuga duten eta kolektiboki jakinarazi beharrekoak diren zerga eta tasak kuotetan ordaintzerik izan dadin 2019tik aurrera.**

Vitoria-Gasteizen, 2018ko azaroaren 21ean.



**OGASUN SAILEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA**  
**Itziar Gonzalo de Zuazo**